Bogan prestakuntza

Agintzari, Zabalduz eta Hiruberen ekimena
Una iniciativa de Agintzari, Zabalduz e Hirube

ESKUTIK HELDUTA:

Harrera eta Adopzioaren Integraziorako Eredu Orokor Baterantz

GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus



ENEKO MENDILUZE PLAZA

email: *enekomendiluze@agintzari.eus*

GuNETuz psikologo euskaldunen sareko kidea

Adoptia Zerbitzuan Psikologoa

Agintzari – Garaian Nafarroa, BOGAN TALDEA

Artikuluaren estilo- eta hizkuntza-berrikuspena Luixa Reizabal Arruabarrena

Haur eta Nerabeen Osasun Globala: Diziplinarteko begirada bila
UEU Ikastaroa - Markeskoa Jauregia - Eibar
2026ko ekainaren 17a

LABURPENA: Harrera- eta adopzio-familiek haien beharretara egokitutako laguntza iraunkorra behar dute. Haurtzaroko kalte goiztiarrari aurre egiteko harrera eta adopzioa ezinbesteko babes-neurriak diren arren, errealitate hori sarritan adingabearen ikuspegitik soilik aztertzen da. Haurrak harrera- edo adopzio-familiara beldurrez iristen dira eta askotan axolagabekeriaren, isolamenduaren, ukazioaren edo oldarkortasunaren bidez adierazten dira. Helduak, berriz, familia-eredu idealizatu batetik abiatzen dira eta gizarteak ez ditu haurtzaroan bizi izandako utzikeria, tratu txar eta abandonu-egoeren ondorioak behar bezala ezagutzen. Hemen aurkezten den Harrera eta Adopzioaren Integraziorako Eredu Orokorra (H.A.I.E.O.) bost fase bereizten ditu, eta integrazioa ez dela lineala, baizik eta modu ziklikoan edo espiralean garatzen den prozesua dela azpimarratzen du. Era berean, begirada zabal baten beharra nabarmentzen du. Abiapuntu gisa, Katiluen Teoria proposatzen du, integrazioa giza sostengu-sareen bidez ulertuz. Adingabeen mina eta ezinegona harrera- edota adopzio-familiek jasaten dituzte modu zuzen eta gordinenean. Familia horiek, berriz, haurtzaroko esperientzia kaltegarriei heldu ahal izateko komunitatearen sostengua behar dute. Adingabeen zauriak hazkunde- eta kidetasun-aukera bihur daitezke, pertsonen, familien eta gizarte osoaren garapena sustatuz.

Hitz gakoak: Andingabea, familia, kalte goiztiarra (*EA, Early Adversity*), haurtzaroko esperientzia kaltegarriak (*ACE, Adverse Childhood Experiences*), babes sistema, harrera familia, adopzioa, integrazio prozesua, komunitatea, katiluen teoria.

ABSTRACT: Foster and adoptive families require sensitive and sustained support. Although foster care and adoption are essential protective measures for the integration of early adversity, this reality is often viewed only from the perspective of the child. Children enter new families carrying fears that are frequently expressed through indifference, withdrawal, rejection, or aggression. Adult caregivers, in contrast, often approach the situation from an idealized view of family life, while society remains insufficiently aware of the consequences of neglect, abuse, and abandonment experienced during childhood. The Expanded Integration Model for Foster and Adoptive Families (EIM) identifies five phases and emphasizes that integration is not a linear process, but one that develops in a cyclical or spiral manner. It also highlights the need to broaden our perspective even further. To this end, the Bowl Theory proposes understanding integration through human support networks. The pain and distress of children are received, in their rawest form, by foster and adoptive families. These families, in turn, require the support of the wider community in order to address Adverse Childhood Experiences (ACEs). In this way, wounds can be transformed into opportunities for belonging and growth, fostering the development of individuals, families, and society as a whole.

Keywords: child, family, early adversity (EA), adverse childhood experiences (ACEs), child protection system, foster care, adoption, integration process, community, Bowl Theory.

Harrera eta adopzioa eraldaketa sakoneko prozesuak dira haurrentzat, familientzat eta haien inguruko komunitateentzat. Ez dira ingurune fisikoaren aldaketara mugatzen; aitzitik, lotura afektiboen berreraikuntza, doluen lanketa eta kidetasun-zentzu berrien sorrera dakarten emozio-, kognizio- eta harreman-prozesu esanguratsuak dira. Haurren babesaren eremu konplexu honetan, Harrera eta Adopzioaren Integraziorako Eredu Orokorrak (H.A.I.E.O.) begirada zabal eta ulerkorra proposatzen du. Eredu honek ez ditu soilik adingabeak kontuan hartzen. Laguntza-prozesuan parte hartzen duten helduen bizipenak, egokitzapen emozionalak eta erronkak ere bere baitan hartzen ditu. Era berean, gertuko komunitatea eta gizarte osoa aintzat hartzen dituen 360 graduko begirada proposatzen du.

Gizakia erabateko mendekotasun-egoeran jaiotzen da eta haren garapenerako testuingururik egokiena familia-ingurune hurbil eta afektiboki sintonizatua izatea da. Errealitate honek familia biologikoa lehenestera garamatza, nahiz eta egoera guztietan posible ez izan. Babesgabetasun-egoera deklaratzen denean, adingabeek ingurune egonkor, afektibo eta seguruan hazteko duten eskubidea bermatzeko, familia-harrera eta adopzioa neurri eraginkorrak dira. Hala ere, neurri horiek ez daude zailtasunetatik salbuetsita eta baliabide desberdinen presentzia eta koordinazioa behar izaten da. Izan ere, esaerak dioen bezala, *bihotz zauritu bat osatzeko herri oso baten beharra dago.*

Pertsonak elkarren mendekoak gara. Harrera- eta adopzio-familiekin egindako jardun klinikoan oinarrituta, eta Marina Nienstedten eta Arnim Westermannen Integrazio Eredua (1989, 2007) erreferentziatzat hartuta, H.A.I.E.O. garatu da. Eredu honek begirada indibidualetik haratago, pertsona, familia eta komunitatearen garapena uztartzen dituen ikuspegi ebolutiboa proposatzen du.

Eredua bost fase edo trantsiziotan egituratzen da eta kalte goiztiarraren integraziorako bidean haurrek, gurasoek eta komunitateek zeharkatzen duten prozesu emozionala, kognitiboa, jokabidezkoa eta harremanezkoa modu sinboliko eta ulergarrian irudikatzen du:

1. **Hasierako idealizazioa:** Ideien mundua.
2. **Errealitatea ezagutzea:** Eskua eskaintzea.
3. **Baldintzarik gabeko onarpena**: Eskua hartzea.
4. **Harremanaren berreraikuntzaren kontzientzia:** Eskua eustea.
5. **Berreraikuntzaren sendotzea:** Eskuragarri egonez, eskua askatzea.

Artikulu honen helburua, beraz, eredu teoriko eta adibide kliniko desberdinak uztartuz, ikuspegi zabal eta integratzaile baterantz urrats sendoak ematea da. Era berean, komunitatearen esparruan diharduten profesionalentzat —irakasleak, psikologoak, psikiatrak, gizarte-langileak, gizarteratze-teknikariak, gizarte-hezitzaileak, erizainak, medikuak eta justiziaren arloko profesionalak— baita haurren eta haien familien garapenean laguntzen duten gurasoentzat, hurbileko pertsonentzat eta diziplina anitzeko taldeentzat ere ulergarriak eta aplikagarriak diren gakoak eskaintzea du helburu. Gainera, adingabeen instituzionalizazioa murrizten laguntzen duten prozesuek bizitzak eraldatzeaz gain, onura sozial eta ekonomiko nabarmenak ere sortzen dituztela azpimarratu behar da.

KALTE GOIZTIARRA HARREMAN ZAURI GISA

Kalte goiztiarrak biografiatik harago uzten ditu arrastoak: gorputzean, nerbio-sisteman, mundua antzemateko moduan, besteekin harremanak izateko eran eta norbere burua babesteko estrategietan ere eragina du. Abandonua, tratu txarrak, utzikeria afektiboa edo ingurune ezegonkor nahiz bortitzetan bizitzea ez dira kanpoko gertakari huts gisa esperimentatzen. Aitzitik, norberaren identitatearen eraikuntza eta besteekin harremanak izateko modua baldintzatzen dituen oinarrizko harreman-esperientzia gisa barneratzen dira.

Babesgabetasun-egoera Kode Zibilaren 172. artikuluan araututa dago eta 8/2015 Lege Organikoan berrikusia. Artikulu honek adingabeak bere garapenerako ingurune egokirik ez duenean administrazio publikoek esku hartu behar dutela ezartzen du; hau

da, adingabea kalte esanguratsua eragin dion egoera batean dagoenean, oinarrizko beharrak ase gabe dituenean eta epe laburrean behar horiek asetuko diren bermerik ez dagoenean adingabearen babesaren ardura administrazioarena da. Harrera familiaren egoera juridikoan, familia zabaleko harreran (biologikoa) edo ahaidetasunik gabeko familian (ez biologikoa), administrazio publikoak du adingabearen tutoretza eta harrera-familiak zaintza bere gain hartzen du. Adopzioan, berriz, tutoretza eta zaintza adopzio-familiaren ardura da eta legezko seme-alaba harremana eratzen da. Horren ondorioz, guraso adoptatzaileek guraso-ahala (*patria potestas* latinez) eskuratzen dute; hau da, adingabeen zaintza, heziketa, babesa eta legezko ordezkaritza hartzen dituen eskubide eta betebeharren multzoa.

Zentzu berean, adingabeek beren jatorrizko familiarekin duten harremana legearen bidez araututa dago. Egoera bakoitzaren berezitasunetan sartu gabe, oro har, harrera-familian harremana mantendu ohi da, eta adopzioan, aldiz, ez. Gaur egun, ordea, adopzio irekiaren ereduak aukera ematen du adingabeak, haren ongizaterako egokia dela ondorioztatzen bada, jatorrizko familiarekin hartu-emanari eusteko. Ildo horretan, etorkizuneko integrazio ereduak hemen aurkezten dena baino are zabalagoa izan beharko luke. Hau da, adingabearen beharrei eta nahiei erantzuten badie eta posible bada, jatorrizko familiak integrazio-prozesuari egin diezaiokeen ekarpen baliotsua aintzat hartu beharko du.

Legea garai berrietara egokitzen joan behar den arren, garapenaren neurobiologiak bizitzako lehenengo harremanetan izandako kalteek nerbio-sistemaren antolaketan eragina dutela erakutsi du. Bereziki, harreman-kalte goiztiarrak sistema linbikoan du eragina, hau da, emozioen erregulazioan, memorian, ikaskuntzan eta atxikimenduan. Ondorioz, arriskua hautemateaz arduratzen den amigdalak hipersentikortasuna garatzen du, eta ingurune seguruetan egon arren, mehatxuak antzematen ditu.

Alor honetan, Patricia Crittendenen ekarpena bereziki lagungarria da; esaterako, Atxikimenduaren Eredu Dinamiko-Ebolutiboa (DMM, Dynamic-Maturational Model of Attachment; Crittenden, 2016). Honen arabera, kalte goiztiarra bizi izan duten haurrek

ez dute nahitaez nahasmendurik garatzen; aitzitik, segurtasuna bilatzera bideratutako atxikimendu-estrategiak eraikitzen dituzte. Crittendenek estrategia horiek antolatuak eta zentzudunak direla azpimarratzen du. Gatazkak saihestea, besteak kontrolatzen saiatzea, adierazpen afektiboa inhibitzea, hiperbigilantzia garatzea, adimena defentsa gisa erabiltzea edo emozioa eta arrazoia zurrun bereiztea dira, besteak beste, sufrimendutik babestea helburu duten estrategiak. Jatorrian, ez dira disfuntzionalak, izan ere, segurtasunaren pertzepzioa mantentzeko eginkizuna duten jarrerak dira.

Harrera- eta adopzio-gurasoek banakako, gurasoentzako, familiako nahiz taldekako saioetan estrategia horien adibide ugari eskaintzen dituzte: «eskolako patioan bakar bakarrik dago, ez du lagunik eta alde batetik bestera dabil bere bakardadetik ezin atera», «batzuetan kontrola erabat galtzen du, bortitza ere, oso erasokorra», «mutiko gatazkatsuenekin elkartzen da beti», «jolasean ari denean ez ditu arauak onartzen», «zer gertatuko den jakin behar du, ez ditu ustekabeak gustuko», «ez du etorkizunari buruzko ikuspegirik, hemen eta orainean bizi da momentu oro», «egun osoa ematen du sukaldeko atearen atzean, adi entzuten», «despentsatik janaria hartu eta gero ezkutatu egiten du», «ez du akatsik onartzen; gezur baten atzetik beste bat dator, eta amaierarik gabeko azalpenetan korapilatzen da», «gure logelako kutxatik gure iraganeko gauza preziatuak hartu eta saldu izan ditu, besteak beste, nire birraitonaren erlojua»...

Adingabeengan agertzen diren jokabide horiek helduen ikuspegitik sarritan apeta, desobedientzia, probokazio, lapurreta edo gezur gisa interpretatzen diren arren, estrategia defentsibo-egokitzaileak dira. Iceberg handi baten punta ikusgarria baino ez da edo, beste modu batean esanda, barruan etengabe sentitzen duten hutsunearen adierazpen gordina. Zentzu honetan, Crittendenek diagnostiko-etiketa zurrunak albo batera utzi eta jokabidea testuinguruan kokatzea proposatzen du.

Adingabeen jokabideez gain, harrera- eta adopzio-gurasoek askotan azaltzen dute kalte goiztiarraren ondorioez behar adina kontzientziarik ez duen gizarte honetan epaituak eta gaizki ulertuak sentitzen direla. Honelako egoerak maiz bizi izan dituzte: «hilabete honetan bi aldiz kanporatu dute eskolatik, eta tutorearen deia jaso gabe ez da aste bat ere igarotzen», «nire semea erregulatzen ez denez, nire haurtzaroagatik galdetu

dit orientatzaileak, eta etxean mugak argi ditugula zalantzan jarri du», «nire semea balitz, ez nioke horrela hitz egiten utziko», «eskolako autobusean joan beharrean, beste guraso batek nik nire semea kotxez eramateko esan zidan», «bera zauritu zenean, ni zertan nebilen galdetu zidan medikuak», «bere ikaskide baten aitak salaketa jarriko didala esan berri dit»...

Zuhaitz-enborren barruko eraztunen irudiak kalte goiztiarraren eragina modu sinbolikoan ulertzen laguntzen du. Zuhaitz baten enborra ebakitzen denean, haren eraztunek bere historia kontatzen dute: bizitako urtaroak, lehorte-garaiak, izurriteek edo ekaitzek eragindako zauriak, baita hazkunde eta hedapen garaiak ere. Eraztun bakoitza agerian geratzen da, ez da bat ere desagertzen, eta eraztunak bata bestearen atzetik hazten doaz garatzen jarraitzen duen egitura berean. Antzera, haur baten historia ezin da ezabatu ezta ordezkatu ere; kontua ez da hutsetik hastea, bizitakoa bere bizi-narratiban integratzea baizik, benetan errotu ahal izateko, hazteko eta garatzeko. Kalte goiztiarraren bizipena ez da desagertuko, baina lagundu eta esanahi berria eman dakioke.

Horregatik, harrera- eta adopzio-prozesuak ez dira testuinguru-aldaketa hutsa; aitzitik, harremanen integraziorako aukera berriak dira. Denbora, sentikortasuna eta presentzia iraunkorra behar dute eta maitasuna eskaintzea ez da nahikoa; haurraren defentsa-estrategiak autoritatearen aurkako erronka gisa ulertu beharrean, oraindik ere mina eragiten duen historiaren adierazpen gisa ulertzea ezinbestekoa da. Beraz, irmotasuna eta komunitatearen samurtasuna eskatzen duten prozesuak dira.

HARREMAN-ZAURIA HARREMANEAN SENDATZEN DA

Harrera- eta adopzio-familien integrazio-prozesuak ulertzeko hiru eredu nagusi bereiz daitezke. Batetik, adingabearen ulermen-gaitasunean arreta jartzen duena; bestetik, familia-narrazioaren garapenean oinarritzen dena; eta, hirugarrenik, ikuspegi psikoanalitikoan oinarritzen dena. Harrera eta Adopzioaren Integraziorako Eredu

Orokorrak (H.A.I.E.O.) aurreko ereduen ekarpenak jaso eta integrazio-prozesuak ikuspegi zabalago batetik aztertzea du helburu.

Lehenik, David Brodzinskyren eredu kognitibo-ebolutiboak adoptaturiko pertsonen garapen-etaparen arabera ulermen-narrazioa nola garatzen den aztertzen du. Eredu hau harreran dauden adingabeei ere aplika dakieke; izan ere, nortasunaren eraikuntzan desberdintasunak egon arren, kalte goiztiarraren ulermenak eta doluen barne-lanketak antzekotasun handiak dituzte. Ondoren aurkezten diren bost adibideek argi erakusten dute prozesua (Brodzinsky, 2006):

4 urteko umea: «Nire amaren sabelean nengoenean nire amak asko maite ninduen… horregatik, medikuari ni adoptatua izateko eskatu zion eta adoptatua izan nintzen...» (Zer esan nahi duzu adoptatua izan zinela esatean?) «Ba, amak medikuari esan zion bere tripatik ateratzeko eta ni adoptatua izateko.» (Eta nola egin zintuen adoptatua medikuak?) «Ez dakit.»

7 urteko umea: «Familia bat ala bi ditut? Nire amak eta aitak ez ninduten sortu... beste emakume baten sabeletik jaio nintzen nonbait... orduan, bere sabelean egon banintzen, nire ama ere bada?... Batzuetan nahasi xamarra da hau.»

9 urteko umea, 8 hilabete zituela adoptatua: «Ezin dut ulertu nola eman zuen bere alaba... pobrea bazen ere... ez dut uste pertsona pobreek horrelakorik egiten dutenik... nirekin geratu nahi ez zuela pentsatzeak asko haserretzen nau.»

Jaio eta egunetara adoptatua izan zen 9 urteko alabaren ama: «Atzo gauean nire alaba oheratu nuenean, bere jatorrizko amak bera gogoratuko ote zuen galdetu zidan... berarekin ez egoteagatik triste egon ote zitekeen... Txikia negarrez hasi zen, kezkatua, bere jatorrizko amak haren falta sumatuko ote zuen galdezka.»

16 urteko gaztea, 18 hilabete zituela adoptatua: «Nire lagunek adoptatua izatea oso ona dela esaten dute... badakizu, bi guraso-bikote izatea... bi ama eta bi aita... baina badakit aldi berean beraiek adoptatuak ez direlako pozten direla, eta horrek deseroso

sentiarazten nau... gauza bat esaten dute, adopzioa bikaina dela alegia, baina benetan ez dute hori pentsatzen... gorroto dut hori.»

Adingabeen narrazioak eta beren bizi-gertaerak ulertzeko duten heldutasun kognitiboa abiapuntutzat hartuta, ondorengo irudian Brodzinskyren eredua laburbiltzen da:

Haurtzaro goiztiarra (0-5 urte)	**Tarteko haurtzaroa (6-12 urte)**	**Nerabezaroa (> 13 urte)**
• **Ez ditu** adopzio bidezko filiazioa eta filiazio biologikoa **bereizten.** • Adoptatua izatearen egoera ezagutaraztean **ez du galera sentimendurik**. Galera fisikoki bizi eta txertatuta dago. • **Hitzez hitz** kontatu dioten historia **errepikatzen** du, bestelako asmakizunekin batera. • **Ez ditu jaiotza eta adopzioa bereizten**. Familia elkarrekin bizi diren pertsona gisa definitzen du.	• Adoptatua izatearen zentzua **ulertzen** hasi da (5-6 urte). • Familia odolezko harreman baten bidez elkartutako pertsonak bezala definitzen du, desberdintasuna ulertzen du eta **abandonuaren kontzientzia hartzen du**. • **Adopzioa** familia baten eraikuntza eta beste baten galera gisa ikusten du. • 8 urterekin, haur askok beren adopzioarekiko anbibalentzia sentitzen dute.	• Adoptatua izatearen egoera **bete-betean uler** dezake, bere gain hartu eta konpondu gabeko kontuak ebazteko gai da. • Identitatearen galera, deskonexio genealogiko gisa berriro aztertzen hasiko da: **Nor naiz ni?** Zer izan nintekeen? Nolakoa izango nintzateke? • Hasierako abandonua irain bihurtzen da, zauri existentziala (isildua). • **Emantzipazio-prozesua konplexuagoa** eta bortitzagoa da.

1. Irudia. Adoptatua izatearen esanahiaren ulermenaren garapena (Brodzinsky, 2006tik egokitua).

Bigarrenik, bizitakoa landu eta ulertze ikuspegitik, Javier Mugicak garatutako Adoptia Narrazio Mapa (Mugica, 2010) bai harrera-familientzat bai adopzio-familientzat ere tresna praktiko eta baliotsua da. Metafora ulergarrien, irudi sinbolikoen eta errespetuzko hizkeraren bitartez, bizitakoa izendatu eta esanahi berriak eraikitzeko aukera eskaintzen du. Mapak historia familiarra eraikitzen laguntzen du, ez du zauria patologizatzen eta hazkunde-prozesuan arreta berezia jartzen du. Mapan hasieran elkarrengandik bereizita ageri diren sei aro bereizten dira: 1. aroa (adingabearen

abandonua eta instituzionalizazioa) eta 2. aroa (etorkizuneko gurasoen eskaintza eta egokitasun-ziurtagiria), 3. aroan bi bideak elkartzen dira (kudeaketa administratiboak eta esleipena); ondoren, 4. aroan integrazio-prozesuak aurrera egiten du (lehen hartu-emana eta egokitzapena), 5. aroan prozesuak izaera juridikoa hartzen du (legezko eratzea gauzatzen da) eta 6. aroan (familia jatorriaren integrazioa) mapa narratiboak amaiera du:



2. Irudia. Adoptia Narrazio Mapa (Mugica, 2010etik egokitua)

Hirugarrenik eta azkenik, Nienstedten eta Westermannen integrazio-ereduak oinarri psikoanalitikoa du eta, batez ere, adingabearengan jartzen du arreta. Bi bertsio dituzte eta bigarrenean, bigarren bertsioan adingabearen barne-prozesuen azterketan sakontzen dute, erasotzailearekiko mendekotasuna (afektiboki behar du, baina aldi berean beldurra dio) eta harekiko identifikazioa (kontrola, indarkeria edo mespretxu jarreraren barneratzea) bezalako kontzeptuekin.

Ereduak integrazio-prozesuan linealak ez diren hiru aro bereizten ditu eta aurrerapausoak, atzerapausoak eta errepikapenak dituen prozesu zirkular eta espiral izaerakoa dela azpimarratzen du. Gorabera sakonak dituen bide hau konfiantzaren eta kidetasunaren eraikuntzaren parte gisa ulertu behar da eta zentzu honetan, jokabide erregresiboak, anbibalenteak edo desafiatzaileak ez dira prozesuaren porrotaren

adierazle; aitzitik, ulertuak eta lagunduak izan nahi duten harreman-minaren adierazpen legitimoak dira (Nienstedt eta Westermann, 1989):

1. **Egokitzapenaren edo esplorazioaren aroa (sedukzioa)**

- Hasierako une honetan, haurrak «ondo» jokatzen duela dirudi: gertukoa eta maitagarria.
- Helduek sarritan benetako integrazioaren seinaletzat hartzen dute jokabide hori; hala ere, haurra ingurune berria zuhurtziaz esploratzen ari da, segurtasuna bilatuz eta arbuioa saihestuz.
- Oraindik ez dago arauen benetako barneratzerik, ezta harreman sakonik ere.

2. **Iraganeko gatazken transferentziaren aroa**

- Haurra konfiantza nahiko garatzen duenean, jokabide oldarkorrak agertzen dira (haserrealdiak, probokazioak edo anbibalentzia afektiboa).
- Helduentzat ulertzeko zaila izan badaiteke ere, aurrerapenaren seinalea da; izan ere, haurra osatu gabeko zauri emozionala erakusten hasten da.
- Iraganeko emozioak eta harreman-ereduak (adibidez, beldurra, arbuioa edo gorrotoa) guraso berriei transferitzen dira.
- Funtsezkoa da helduek maitasunez lagundutako irmotasunari eustea, haurrari bizipen mingarriak lantzen laguntzeko.

3. **Erregresioaren aroa**

- Haurrak bere adinarekin bat ez datozen jokabide infantilak adierazi ditzake: biberoia eskatzea, haur txiki baten moduan hitz egitea edo kontaktu fisiko estua bilatzea.
- Jokabide horiek haurtzaro goiztiarrean asetu gabeko beharren adierazpenak dira.

Hiru eredu hauek oinarri bera partekatzen dute: denboran zehar esanguratsua, egonkorra eta eskuragarria den harremanaren bidez harreman-zauria integra daiteke. Prozesu honek sintomari eustea edo diagnostikatzea baino askoz gehiago dakar: izendatzeko zaila denari izena jartzea, anbibalentziari eustea, historia aitortzea eta norberaren zentzua berreraikitzeko leku legitimo bat eskaintzea.

ESKUTIK HELDUTA: INTEGRAZIO EREDU OROKOR BATERANTZ

H.A.I.E.O. Adoptia narrazio-prozesuaren aroetan oinarritzen da, eta adoptatua izatearen ulermenaren ikuspegia kontuan hartuta, Nienstedten eta Westermannen eredua osatu eta zabaltzea proposatzen du. Eredu honek adingabearengandik eta harrera- edo adopzio-familiatik haratago, komunitatean eta gizarte osoan ere jartzen du arreta.



3. Irudia. H.A.I.E.O.ren diagrama: integrazio-prozesuaren bost aroak harrera- edo adopzio-familian (Mendiluze, 2025)

1. **Idealizazioa: Ideien mundua.**

Ekintza	Bestelako aditzak
Irudikatu	Asmatu, aurreikusi, susmatu, sortu, uste izan, amestu.



4. Irudia. Idealizazioaren fasea: irudikatzea (Mendiluze, 2025)

Lehen urratsa plano sinboliko eta subjektibo batean garatzen da: ideien edo ernaldi psikikoaren munduan. Desioen, proiekzioen eta familia-eraikuntzaren zentzuaren hasiera da. Une honetan, etorkizuneko gurasoak semea edo alaba irudikatzen hasten dira, eta desberdintasunak jasotzeko aukera emango duen barne-espazioa garatzen hasten da.

Oro har, garai honetan helduek ez dakite haurtzaroko esperientzia kaltegarriak (*ACE, Adverse Childhood Experiences*) jasan dituen adingabearekin harremana eraikitzeak dakarren erronkaren neurria, ezta adingabearen garapen egokia ahalbidetzeko bidea zabaltzeak dakarren erantzukizunaren dimentsioa ere. Irudikatutako abiapuntu horretatik, profesionalek ematen dituzten hasierako nahitaezko prestakuntzetan, sarritan zalantza edo ukazioa jasotzen dute: «Baina esaten duzun hori haur guztietan da, erronkak berdinak dira eta zailtasunak ere berberak», adierazten zuen behin eta berriz adopzio aurreko nahitaezko prestakuntzako parte-hartzaile batek; «hori ere ume guztiekin gertatzen da, nire ilobarekin astebururo, adibidez».

Ohikoa da, halaber, jarrera moralizatzaile bat aktibatzea: etorkizuneko gurasoek beren burua «onak» balira bezala ikusten dute; familia biologikoa, berriz, «txarra», eta adingabea noraezean dabilen norbait bezala, salbamendu-txalupa baten premian. Irudi hori zaintza-desiratik sortzen bada ere, haur edo nerabearen sufrimendua eta subjektibotasuna aitortzeko garaian oztopo bihur daiteke. Batez ere, adingabeak itxaropen afektiboei erantzuten ez dienean.

Profesionalen ikuspegitik, une honek aukera paregabea eskaintzen du galderak argitzeko, salbatzaile-fantasiak berrikusteko, doluak lantzeko —ugalkortasunari lotutako dolua maiz ageri da—, prestutasun emozionala lantzeko eta, batez ere, harrera-edo adopzio-proiektua ikuspegi errealistago batetik eraikitzeko. Horrez gain, funtsezkoa da pertsonek prozesu osoan zehar laguntza praktikoa eta emozionala eskain dezaketen gertuko senideek, lagunek eta bestelako pertsona esanguratsuek osatutako sostengu-sarearen inguruan hausnartzea. Behar denean, laguntza eskatzeko gaitasuna babes-faktore baliotsua izango da, eta nahitaezko guraso-egokitasunaren balorazioak harreman-sarea ere kontuan hartu beharko luke.

Helburua, beraz, desira ezabatzea baino, izaera aktibo, kontziente eta malgua duen desira eraikitzea da. Hau da, aurretik bizitako zailtasunen ondorioz garapen bio-psiko-sozialean oinarri ahulak dituen adingabe baten etorrerari erantzuteko gai izango den jarrera garatzea da xede nagusia.

2. Errealitatearen lehen ezagutza: Eskua eskaini.

Ekintza	Bestelako aditzak
Eskaini	Eman, luzatu, inplikatu, gonbidatu, erraztu, hurbildu, aurkeztu.



5. Irudia. Errealitatearen lehen ezagutza: eskua eskaintzea (Mendiluze, 2025)

Urrats honek idealizaziotik errealitatearekin kontaktura dagoen igarobidea dakar. Dagoeneko, ez da harrera egiteko edo adoptatzeko desira hutsa; benetako haur edo nerabearekin elkarbizitzaren hasiera baizik: haren erritmoekin, isiltasunekin, defentsa-mekanismoekin edo metaforikoki esanda, zama emozionalarekin edo motxilarekin. Une honetan, proiektatutako idealetik haratago, familia adingabea ikusten, entzuten eta sentitzen hasten da. Aldi berean, hasierako aurreikuspenen eta itxaropenen doluari ekiten zaio.

Bi aldeek —helduek zein adingabeek— elkarrekiko gehiegizko egokitzapen egoeran sar daitezke, modu atseginean adierazten, gatazkak saihesten edo besteak espero duenari erantzuten saiatuz. Gehiegizko egokitzapenak, bai adingabeengan bai helduengan, onartua ez izateko beldurrean du jatorria.

Une hau emozionalki delikatua da. Haurra ingurua zehatz-mehatz behatzen ari da: keinuak, ahots-tonuak, erreakzioak eta, batez ere, helduaren eskuragarritasun emozionala. Gainera, usaintzen, entzuten, ukitzen eta dastatzen duen guztia desberdina da; dena berria, kezkagarria eta segurtasunik gabekoa. Adingabea askotan alerta-egoeran dago. Helduak, berriz, ilusioz beterik egon arren, segurtasun falta ere sentitzen dute, eta espero ez zituzten eta paradoxikoak izan daitezkeen jokabideen aurrean zalantzaz beterik senti daitezke. Heldua une honetan maitasuna, nahitaezkoa izan arren, ez dela nahikoa izango ulertzen hasten da. Harremana eraikitzeak deserosotasunak, frustrazioak eta, batez ere, pazientzia eskatzen du; pazientzia handia.

«Berehalako maitasunean sinesten nuen, baina ez dela horrela konturatu naiz. Ez nuen espero adingabeak lehen gaua oihuka, bultzaka eta ni baztertzen emango zuenik; argi eta garbi baztertzen ninduen, nekeagatik lo hartu zuen arte**»**, azaldu zuen harrera-ama batek elkarbizitzako lehenengo gauaren ondoren.

Beste aita batek talde-saio batean honela adierazten zuen: «Integrazioari buruz eman diguzuen artikuluan (Nienstedt eta Westermann, 1989) aipatzen den gehiegizko egokitzapenaren une hori ez da gure kasuan eman. Hasiera-hasieratik zaila izan da gure semearen haserrealdiei eustea. Izan ere, lehen gaua oso gogorra izan zen».

Garai honek ziurgabetasunarekiko tolerantzia handia eta adingabearen erritmoekiko errespetua eskatzen ditu. Ez da dena berehalakoa izango, ezta arina edo erraza ere. Horregatik, bereziki garrantzitsuak dira eskuragarritasun isila eta etengabea, jolasa, une dibertigarriak eta sintonia emozionala.

Umore onaren balioa sintonia eraikitzeko tresna gisa azpimarratzekoa da. Umoreak elkartzeko eta une zailak arintzeko gaitasuna du, erresilientziarako babes-faktore baliotsua izanik. Izan ere, tentsio egoerak elkarrenganako gertutasunean bihurtzeko aliatu indartsua bilakatu daiteke.

Ikuspegi klinikotik behatuta, haserrealdien, probokazioen, itxurazko ukapen edo arbuioen atzean haurra ez dabil gatazka eragiteko helburuarekin, baizik eta harremana egiaztatu nahian ari da: «Erraza ez naizenean ere, hor egongo al zara ni maitatzeko?»

Une horietan helduaren erantzuna garrantzitsua da. Jokabide konplexuen eztandaren aurrean, adingabea bere burua erregulatzeko laguntza eskatzen ari da. Hau da, askotan ulertu ezin duen eta are gutxiago azaldu dezakeen egoera emozionala prozesatzeko laguntza behar du. Helduaren jarrerak, zentzu honetan, emozio eta harreman esperientzia berrietarako bidea ireki eta harreman-zauriaren sendatzea ahalbidetu dezake.

Eskua eskaintzeko urrats honetan, proiekzioen garai delikatu bat ere has daiteke. Helduak, sarritan, adingabearen egungo jokabideak haren iraganaren ondorio gisa

ulertzen hasten dira. Esanahi horiek sentikortasunez ematea lagungarria izan daiteke; hala ere, azalpen sinple eta itxietara jotzen bada, arreta adingabearengan soilik jartzera irits daiteke, harremanaren izaera elkarreragilea behar bezala aintzat hartu gabe.

Zenbait kasutan, gainera, lehen gaitasun-azterketak, desgaitasunak, diagnostiko mediko edo psikologikoak eta tratamendu farmakologikoak hasteko gomendioak ager daitezke. Horrek guztiak irakurketa kliniko egokia behar du, betiere testuingurua kontuan hartuta. Horretarako, Boterearen, Mehatxuaren eta Esanahiaren Eredu berritzaileak (*Power Threat Meaning Framework*) arlo anitzetako profesionalei laguntza eskaini diezaioke (Johnstone eta Boyle, 2023).

Zentzu honetan, haurtzaroko esperientzia kaltegarrien integrazioan urratsak ematen jarraitzeko, helduek ondorengo mezua transmititzea —hitzaren bidez, baina batez ere keinuen bidez— funtsezkoa izango da:

Badakigu gugan zalantzak izateko arrazoiak dituzula, zure burua defendatzeko, babesteko eta gu proban jartzeko. Luzatzen dizugun esku honek, zalantzak sortzea guztiz ulergarria bada ere, ez du atzera egingo.

3. Baldintzarik gabeko onarpena: Eskua hartzea.

Ekintza	Bestelako aditzak
Hartu	Jaso, ezagutu, aurkitu, bereganatu, eskuratu, lortu, bideratu.



6. Irudia. Baldintzarik gabeko onarpena: eskua hartzea (Mendiluze, 2025)

Urrats honek inflexio-puntua dakar. Adingabearen eskuak sinbolikoki helduarena ukitu du; eta une honetan helduak erantzun eta eskua hartu behar du. Konfiantzaren haziak, aurreko bizi-esperientzia arriskutsua eta mingarria izan zela jakinik, sustraiak garatzeko lur berri eta emankorra behar du.

Mehatxuaren itzala lausotzen hasi da, eta haren ordez, fidagarria den zerbait ageri da. Bere barne-munduari hitzak jartzeko gaitasuna duen 27 urteko gazte baten kontakizuna bereziki esanguratsua da. Gaur egun emantzipatua dago, bere bikotearekin bizi da eta bere gurasoekin iraganari buruz hitz egitean honela adierazten du: «Garai hartan bi urte neramatzan zuekin harreran eta elkarbizitzan, baina nork ziurtatzen zidan zuek abandonatuko ez ninduzuela? Kosta egin zitzaidan, bai, eta oraindik ere benetan zaila zait maite nauzuela onartzea».

Ildo beretik, 18 hilabeterekin adoptatutako 9 urteko ume batek bere amari honako galdera egin zion: «Ama; nola jakin dezaket ez nauzula abandonatuko, jada behin abandonatu banaute?»

Garai honetan, maskarak erortzen dira eta harremanak naturaltasuna hartzen du. Zailtasunak azaleratzen dira eta, maiz, ulermen eza, nahasmena eta nekea ere ageri dira. Hau da, adingabea eta familia berezko moduan elkar ikusten hasi dira, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Adingabea helduaren presentzia iraunkorra onartzen hasten da. Une honek mugimendu bikoitza adierazten du: adingabearen aldetik, barne-munduaren eta emozioen irekitzea; eta helduaren aldetik, baldintzarik gabeko sostengurako ardura eta konpromisoa. Une erabakigarria da; izan ere, helduak harrera- edo adopzio-familia eratzeko nahiak eta itxaropenak era egokian lantzeko aukera izan badu, eskuragarritasun emozionaletik erantzungo du inolako ordaindik espero gabe.

Heldua, dagoeneko, adingabea ulertzen hasten da. Ez du maitasuna behar duen edo arazoak dituen haur gisa soilik ikusten; aitzitik, pertsona gisa ikusten hasten da, bere ñabardurekin, baliabideekin, indarguneekin eta zaurgarritasunekin ere.

Eskua hartzeak ez du egonkortasuna bermatzen. Adi eta zuhur egindako hurbilketa-saio bat besterik ez da, «ea zer gertatu daitekeen» ikusteko gonbidapena. Horregatik, haurtzaroko esperientzia kaltegarriak pairatu dituzten adingabe askok oreka- eta desoreka-uneak txandakatzen dituzte, atsegin eta gertuko adierazpenetatik haserrealdi edo arbuioetara igaroz —eta ohikoak dira, halaber, heldutze-bideko fase erregresiboak edo atzerakadak, adin kronologikoari dagokiona baino heldutasun txikiagoa erakutsiz—. Ibilbide guztia integrazio-bidearen parte da eta ez da atzerapausotzat ulertu behar. Aitzitik, lehen ezkutuan zegoena orain erakusteko adina segurua den harreman-esparru bat sendotzen ari denaren seinale da.

Era berean, gezurrak eta manipulazio saiakerak agertzea ohikoa da ere, ez hutsegite moral gisa, baizik eta ingurunea kontrolatzeko bitarteko gisa —«kontrola badut, ezingo naute mindu»— edo lotsaren, erruaren nahiz arbuioaren beldurraren aurrean babesteko estrategia gisa. Jokabide horiek mesfidantzaren sintoma badira ere, adingabearen minaren sakontasuna ulertzeko ateak ere badira.

Amaren edo aitaren aldetik, garai honek presentzia irmoa eskatzen du. Helburua ez da perfektua izatea, ezta beharrezkoa ere; huts egiten denean egoera konpontzeko gai izatea da garrantzitsuena hemen, frustrazioa sentitzen denean ez urruntzea eta, batez ere, haurrari ez eskatzea konfiantza izan dezan. Harremanaren sendotasuna ez dago afektuaren intentsitatearen baitan, baizik eta babes sentimenduaren iraunkortasunean.

Garai honek, beraz, gurasoen baldintzarik gabeko onarpena eskatzen du, baita barruko bulkadak urruntzera bultzatzen duenean ere: *gezurra esan, oihu egin edo aldentzen bazara ere, hemen jarraituko dut. Zure eskua hartu dut, eta nire determinazioa erakutsiko dizut.*

4. Harremanaren berreraikuntzaren kontzientzia: Eskua eutsi.

Ekintza	Bestelako aditzak
Eutsi	Heldu, ulertu, baieztatu, berretsi, sostengatu, errotu, ainguratu.



7. Irudia. Harremanaren berreraikuntzaren kontzientzia: Eskua eustea (Mendiluze, 2025)

Familiek beren eginkizunaren neurriaz eta garrantziaz jabetzen dira laugarren urrats honetan: adingabearen historia, jatorria eta, sarritan, belaunaldiz belaunaldi transmititutako zauriak ulertu eta bereganatu dituzte. Gainera, bizirautea ahalbidetu duten babes-estrategiak era gordinean bizi eta identifikatu dituzte ere.

Harremana sendotzen hasi da, baina ez goranzko eta norabide bakarreko ibilbide errazean, baizik eta errepikapenez, atzerapausoez eta ziurgabetasunez beteriko bide malkartsuan. Une honetan, eskua heldu eta ez askatzearen keinuak zentzua hartzen du. Behin eta berriro konfiantzaren eta mesfidantzaren, hurbiltzearen eta urruntzearen, kidetasuna eragindako ezinegonaren eta banaketak eragindako ezinegonaren arteko dantza konplexua ematen da. Azken finean, partaide izatearen edo ez izatearen gatazka identitarioa dago jokoan.

Gurasoak haurrari edo nerabeari ez ezik, beren buruari begiratzen hasten dira. Sostenguaren esanahiaz ohartzen dira. Izan ere, ez da soilik maitasuna eskaintzea edo pazientzia izatea, baizik eta norberaren sinesmenak, mugak, zauriak eta harremanak izateko moduak berrikustea ere bada. «Konturatu naiz ni naizela terapiara joan behar

duena, eta ez bera», zioen harrera-ama batek; «nire semea gizarte osoaren biktima da, eta ni naiz bere erreferentziazko figura egonkor eta segurua».

Hemendik aurrera, gurasoen barne-bidaiaren garapen intimoari ekiten zaio. Helduaren bizitzaren historia, atxikimenduak, itxi gabe dauden doluak eta zaintza eredua nola bereganatu den berrikustea garrantzitsua da. Sarritan, guraso izateak ekartzen dituen zailtasunek sinesmen mingarriak pizten dituzte: «Guraso txarra naiz eta berarentzako ez naiz nahikoa», «ez dakit zer egin», «ezin dut gehiago». Halaber, errua, haserrea edo huts egiteko beldurra agertu ohi dira. Bizipen horiek izendatu eta lantzen ez badira, laguntza emozionalerako gaitasuna ahuldu dezakete. Hala adierazten zuen adopziozko aita batek terapia saio batean: «Nire kezkarik handiena axolagabekerian erortzea da».

Prozesu honek familia-dinamika osoa zeharkatzen du eta gainkargak, desadostasunak eta tentsioak edonon ageri daitezke. Helduak laguntzearen lan profesionalak haien komunikatzeko, elkar entzuteko, zaintza bizitzeko eta laguntza eskatzeko moduak berrikustea ekartzen du. Gurasotasuna, egoera hauetan bereziki, ez da banakako zeregina, partekatua eta komunitarioa da eta nekea saihesteko laguntza behar du. Hau da, adingabearen eskua ez askatzeko, helduaren eskua ere heldulekua behar du: senideak, lagunak edo profesionalak, esate baterako.

Profesionalen eremua, oro har, atomizatua, zatitua eta koordinaziorik gabea izan ohi da. Hala ere, familiarekin elkarlanean diziplinarteko begirada eratzea —hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak eta komunitateko baliabideak barne— integrazio-prozesua errazten du. Familiak profesionalen babes sentikorra, ulerkorra eta eskuragarria duela sentitzen duenean, segurtasuna, konfiantza eta autonomia modu nabarmenean irabazten ditu.

Garai honetan, argi dago dagoeneko asmo erreparatzailea edo maitasuna emateko nahia ez dela nahikoa: harreman-zauriaren sendatzeak presentzia, errepikapena, entzuteko gaitasuna eta koherentzia eskatzen ditu. Une honetan, eginkizun erreparatzailea adimenetik gorputzera jaisten da: jada ez da ideia bat edo

funtzio erreflexiboaren bidez azal daitekeen proiektu arrazional bat, baizik eta hizkuntzatik harago eusten duen praktika afektibo eta iraunkorra da, nekea, frustrazioa edo zalantza agertzen direnean ere bere horretan dirauena. Ulermen intelektualetik gorputzean sentitzera igarotzea da, eta sentitzetik gorputzaren osotasunarekin isilean ulertzera.

Aita batek, sakon arnastuz, honela adierazi zuen poetikoki saio batean: «Ibai baten antzekoa naiz, bihurgunez bihurgune noa, oraindik aurkitu ez dudan itsasora iritsiko naizen itxaropenarekin. Ez dut itsasoaren arrastorik ere ikusten, ezta argi izpirik ere». Hori esaten zuen bitartean, begirada tinko mantentzen zuen eta arnasa sakon hartzen jarraitzen zuen.

Hemen, eta prozesu osoan zehar, baina bereziki une honetan, beharrezkoa da gurasoen eginkizunik konplexuenetako bat martxan jartzea: ikus daitekeen izozmendiaren azpian dagoena irakurtzeko gaitasuna garatzea. Erraz ikusi daitekeen jokabidetik haratago, adingabearen sinesmenak, pentsamenduak eta emozioak ikusi eta ulertzeko gaitasuna, alegia. Jokabide desafiatzaile askok —gezurrak, oldarkortasuna, autolesioak, blokeoa, motibazio falta, lapurretak edo arbuioa—, izozmendiaren azpian, baztertua edo abandonatua izateko beldurraren adierazpenak dira. Ez da «aulkia bota dit!», baizik eta «huts egiten badut, nire ondoan jarraituko duzu?». Ez da «nire bizitza hondatu nahi dit!», baizik eta «zure lehentasuna ez izatearen beldur naiz».

Indarkeriarik gabeko guraso-erresistentziaren ereduak (*Nonviolent Resistance*, Omer, 1998) une honetan garrantzi estrategikoa hartzen du: irmotasuna eta koherentzia errespetuarekin eta afektuarekin uztartzen ditu, mugak argi ezarriz, zigorrera edo indarkeriara jo gabe. Esate baterako, tirabira emozionalean ez sartzea izan daiteke sostengua emateko modurik eraginkorrena.

Harrera-aita batek honela adierazten zuen: «Txikitan aitarekin arrantzara joaten nintzenean bezalakoa da hau: arrainak amua irentsi zuela zirudienean, kanaberari gogorregi tiratzen banion, arrainak ihes egiten zuen».

Eredu honetan, amak eta aitak aingura seguru gisa jokatzen dute, seme edo alabaren erreakzioa edozein dela ere beren jarrerari eutsiz. Estrategia ugari proposatzen ditu, eta autokontrola, gatazken deseskalada, erreparazioa eta familia-egonkortasuna sustatzen ditu. Familia-sarearen laguntza ere aintzat hartzen duen ikuspegia da, eta elkarri eusten jakitearen zein laguntza eskatzen ikastearen garrantzia azpimarratzen du.

Garai honek, beraz, sendotasun emozionala eskatzen du, baina ez gogortasunaren zentzuan, baizik eta ezinegona jasateko gaitasunaren, itxaroten jakitearen eta koherentzia afektiboaren zentzuan. Harremana tentsionatzen denean ere eutsi behar zaion mezua argia da:

Hemen nago eta jarraituko dut. Nahiz eta nigan konfiantza guztia ez izan, nahiz eta behin eta berriz proban jartzen nauzun, nahiz eta min eman, ez dizut eskua askatuko.

5. Berreraikuntzaren sendotzea: Eskuragarri egonez, eskua askatu.

Ekintza	Bestelako aditzak
Askatu	Autonomia sustatu, bultzatu, bereizi, deslotu, emantzipatu, motibatu.



8. Irudia. Berreraikuntzaren sendotzea: Eskuragarri egonez, eskua askatzea (Mendiluze, 2025)

Harremana proban jarri, eutsi eta sendotu denean, aukera berri bat irekitzen da: integrazio emozionala eta barne-sendatze sakona. Bosgarren urrats honek harremana

esparru seguru eta fidagarri gisa finkatzea dakar, ez soilik helduarengandik adingabearengana, baita adingabearengandik helduarengana ere. Harremanak ametsa izateari uzten dio, eta bizitzaren parte den errealitate egonkor, seguru eta partekatua bihurtzen da.

Familia-giroa emozionalki egonkortzen da, ez gatazkak desagertzen direlako, baizik eta elkarren arteko konfiantza nahikoa garatu delako eta harremanaren hausturaren beldurra baretu delako. Adingabea bere barne-egituran lasaitzen hasten da: jada ez du etengabeko alerta-egoeran egon beharrik, ezta harremana behin eta berriz proban jartzeko beharrik ere. Kasu batzuetan, ordea, garrantzitsua da azpimarratzea erabateko autonomia erdiestea ezinezkoa izan daitekeela, eta behar espezifikoak edo funtzionamendu- nahiz desgaitasun-maila desberdinak ere ager daitezkeela.

Eskuragarri egonez eskua sinbolikoki irekitzeak, nahiz eta adin nagusitasuna lortu izan, semearen edo alabaren gaitasunak aitortu eta errespetatzea eskatzen du. Une zailenetan eskua irmotasunez heldu ondoren, helduek presentzia eta sostengua eskain ditzakete, harremana eskua zenbateraino estutzen denaren araberakoa baino; denboran zehar ehundutako konfiantzaren araberakoa dela jakinik.

Horren adibide esanguratsua *24 SIETE* (bibliografian esteka irekia) laburmetrailean ikusi daiteke (Requejo, 2024). Bertan, harrera-ama batek honela dio: «Edozer behar iztekotan, sukaldean zure zain izango gaituzu». Mezu honek presiorik gabeko harrera adierazten du; arreta, eskakizunik gabe; eta presentzia, inbaditu gabe. Azken batean, *hemen nago, eskuragarri, eta zu prest zaudenean libre zara etortzeko* helarazten duen mezua da. Hau da zehazki presentziaz eta eskuragarritasunez eskua askatzearen esanahiaren irudi esanguratsua.

Gurasoen kasuan, garai honek aitortza eta eraldaketa pertsonala ere badakar: harremanean konfiantza izaten, itxaropenak malgutzen eta aurrerapausoak zein atzerapausoak prozesuaren parte direla onartzen ikasten dute. Sostenguak iraunkorra izan behar duela ere integratu dute. Beren emozio eta erreakzioei buruz hausnartzearen

garrantzia barneratu dute, baita noiz gelditu behar den eta laguntza zintzotasunez eskatu ere.

Orain arte landu ez den eta integrazio-prozesuan funtsezkoa den alderdi bat familia biologikoaren parte-hartzea da. Adierazi den bezala, eredu honek gero eta ikuspegi zabalagoetara begiratzen badu ere, oraindik ez da nahikoa, eta eredu orokor bateranzko bidean lerrokatzen da oraindik ere plano guztiak kontuan hartu gabe.

Familia biologikoaren parte-hartzeari dagokionez, eta sarrera labur gisa, adopzioaren eta harreraren errealitateek izaera desberdinak dituzte. Hala ere, haren parte-hartzearen balioaren adibide baliagarri bat *Todas las Mañanas* (De Isusi, 2024) liburuan aurki daiteke. Bertan, ama biologikoak, Familia Elkargunerako Zentro batean eta profesional baten presentziarekin, harreran dagoen bere semeari tratu txarrak gertatu ziren testuingurua kontatzen dio. Hau da, ama biologikoak bere semeari babesgabetasuna deklaratzearen arrazoiak azaltzen dizkio. Kontakizun hori, arretaz landua denean, integrazio-prozesuaren ardatz bihur daiteke, adingabeari bere bizitza-historia ulertzen eta leialtasun-gatazkak zein kidetasun bikoitzaren inguruko gatazkak ebazten lagunduz.

Adopzioaren kasuan, puzzlearen zati guztiak osatzea zailagoa izan daiteke. Estatuko adopzioek eta nazioarteko adopzioek ere desberdintasun nabarmenak dituzte, eta kasu askotan ezinezkoa izaten da familia biologikoaren parte-hartzea. Ildo horretan, Alberto Rodríguezek (2021) adopzio familiek seme-alabekin duten sintoniatik abiatuta jatorriaren bilaketa nola antolatu eta landu daitekeen azaltzen du. Horretarako, zinemako baliabideetan oinarritzen den eskema bat garatu du, barne-bilaketa (psikologikoa) eta kanpo-bilaketa (jokabidezkoa) kanpoko laguntzarekin uztartzen dituena (bibliografian esteka irekia).

Zentzu honetan, ama adoptibo batek bere semeak egindako kanpo-bilaketa azaltzean emandako testigantza argigarria izan daiteke: «Begira argazki honetan zein lasai, bare eta zoriontsu agertzen den nire semea, bi aitak alboan dituela: bata biologikoa eta bestea adoptiboa, bere jatorrizko herrialdean, Etiopian».

TRIBUAK ERRE GABE BEROTZEN DUENENAN: SOSTENGURAKO KATILUAK

Haurrak ez badu tribuaren babesa sentitzen, herrixka erreko du haren beroa sentitzeko. *(Afrikako esaera zaharra)*

Esaera zahar horrek harrera- eta adopzio-prozesuetan jokoan dagoenaren muina biltzen du: haur eta nerabe orok seguru sentitzeko duen eskubidea, ez soilik babes fisikoa jasotzeko, baizik eta harekin konpromisoa hartzen duten helduek aitortua, ulertua eta emozionalki sostengatua izateko ere. Adingabeak beldurra gorputzean errotuta iristen dira; ez da beti ikusgarria izaten, ezta hitzez adierazten ere. Batzuetan, desobedientziaz, isolamenduaz, oldarkortasunaz edo axolagabekeriaz mozorrotuta agertzen da. Horren aurrean, kontrolaz edo epaiketaz haratago, minarekiko sentibera den begirada beharrezkoa da, izozmendiaren azpialdean ikusgai ez dagoen zatia irakurtzeko gai dena: kalte goiztiarra, zauri sakona edo trauma ikusteko gai dena, hain zuzen.

Harrera -edo adopzio- familia eratzea ez da soilik erabaki afektibo bat; harreman zauriak sendatzeko ekintza etiko bat da, tribu bat —pertsona sare bat— behar duena: sufrimenduaren aurrean beldurtuko ez dena, harremana zorrotzagoa bihurtzen denean urrunduko ez dena eta haurrak harreman probak egiten dituenean abandonatuko ez duena. Begirada maitagarria behar da, ez soilik adingabeenganakoa, baita laguntzen duten helduenganakoa ere, haiek ere sostengua behar baitute. Harrera eta Adopzioaren Integraziorako Eredu Orokorra (H.A.I.E.O.) ez da ez errezeta bat, ezta berme bat ere: mina daramaten istorioen eta erreparatu nahi duten nahien arteko topaketa ulertzeko modu bat da. Presentzia irmoa, etengabea eta leku seguru bat eskainiz, berehalako maitasunik eskatu gabe, eskutik helduta egiten den bidea da. Izan ere, adingabeak ikusia izateko herrixka erretzeko beharrik ez duela sentitzen duenean, herrixka bere etxe gisa sentitzen has daiteke.

Adingabe orok, haurtzaroko esperientzia kaltegarriak (*ACE, Adverse Childhood Experiences*) bizi izan baditu, begirada sentikor bat merezi du; jokabideak

interpretatzera mugatuko ez dena, gorputzean errotutako mina, amorru bihurtutako defentsa, axolagabekeriaren atzean ezkutatzen den beldurra eta harremanaren azalaren azpian bizirik dirauen zauria ikusteko gai dena. Halako begirada batek ez du konfiantzarik eskatzen, landu egiten du. Ez du esker onik eskatzen, presentzia eskaintzen du. Ez du maitasunik exijitzen, aukera ereiten du.

Familia batek, prestakuntza handiena izan arren ere, ezin dio hain konplexua den prozesu emozional bati bakarrik eutsi. Adingabea ez da orri zuri bat bezala iristen. Bizipenez, kalte goiztiarrez eta eusteko zailak diren emozioz gainezka dagoen ontzi bat bezala iristen da. Lehen ontzi horrek —adingabeak— ontzi handiago batean isuri behar du bere ezinegona: harrera- edo adopzio-familiaren ontzian, epairik gabe hartuko duena eta bizipenen oldarraldiaren eragina hautsi gabe sostengatzeko gai izango dena.

Hala ere, familiak ere batzuetan gainezka egiten du. Historia zaurgarria duen, beldurra gorputzean errotuta eta alerta guztiak piztuta dituen adingabe bati eusteak nekatu egiten du, min ematen du eta norberaren zauriak ere aktiba ditzake. Gainezka egite horrek, era berean, are handiagoa den ontzi batean ezinegona isuri behar du: tribuan, taldean, komunitate zabal eta eskuragarri batean. Familia-sareak, auzokideak, profesionalak, hezkuntza-, osasun- eta komunitate-sistema sentikorrak; ez epaitzen, etiketatzen edo salbatzen duten teknikari gisa, baizik eta sostengurako gaitasuna handitzen duten presentzia fidagarri moduan.

9. Irudia. Katiluen Teoria (Mendiluze, 2025)

Nafarroan esperientzia profesionaletik sortutako Katiluen Teoriak (Mendiluze, 2025) gogorarazi nahi du harreman-zauriaren sendatzeko prozesua ez dela lineala, ezta banakakoa edo berehalakoa ere. Zirkularra da, komunitarioa eta denboran zehar sostengatua. Kalte goiztiarraren ura uholde suntsitzaile bihur ez dadin, komunitatean adingabearen eta gurasoen inguruan katiluak eraikitzea ezinbestekoa da.

H.A.I.E.O. ez da harremanari buruzko narrazio huts bat; eskakizunik gabe laguntzeko eta presentziaz sostengatzeko bidea irekitzen duen proposamen bat da. Haren indarra harremanen ahalmen eraldatzailean datza. Begirada sentikorrarekin eta harreman-konpromisoarekin, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den sufrimendua arindu daiteke, baita komunitateek zauriak sendatzeko duten gaitasuna indartu ere. Horretarako, *nahikoa ona** den tribu bat behar da (Winnicott, 1971): gizatasunetik abiatuta, kaltea baino handiagoa izango dena eta harreman bakoitza itxaropenerako aukera bihurtuko duena.



10. Irudia. Tribua edo komunitatea (Mendiluze, 2025)

*«Nahikoa ona» terminoa Donald Winnicott psikoanalista eta pediatra britainiarraren ekarpen teorikotik dator (Winnicott, 1971). Kontzeptu honek ez ditu guraso edo zaintzaile perfektuak deskribatzen, baizik eta adingabearen beharrak modu egokian asetzeko gai diren helduak: segurtasuna, euste emozionala, erreparazioa eta presentzia eskaintzen dituztenak.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Boyle, M., & Johnstone, L. (2023). *Una introducción directa al marco de poder, amenaza y significado: Una alternativa al diagnóstico psiquiátrico* (M. A. Valverde Eizaguirre & E. García Torrents, Itz.). Milenio.

Brodzinsky, D. M. (2006*).* Children's understanding of adoption: Developmental and clinical implications*. Professional Psychology: Research and Practice, 37*(6), 615–623.

Crittenden, P. M. (2016). *Raising parents: Attachment, parenting, and child safety*. Routledge.

De Isusi, J., (2024). *Todas las mañanas*. Astiberri Ediciones.

Mendiluze Plaza, E. (2025). De la mano: Hacia un Modelo de Integración Ampliado en Acogimiento y Adopción. Agintzari. https://www.agintzari.com/cas/en_que_estamos_ficha.aspx?guid=52a183f9-7c75-4db9-a514-347a24d38f60&origen=home

Múgica Flores, J. (2010). Claves y recursos narrativos para el abordaje de la condición adoptiva de niños, niñas y adolescentes. F. Loizaga Latorre (Koord.), *Adopción hoy: Nuevos desafíos, nuevas estrategias* (1–23 or). Ediciones Mensajero.

Nienstedt, M., & Westermann, A. (1989). *Pflegekinder: Psychologische Beiträge zur Sozialisation von Kindern in Ersatzfamilien*. Votum Verlag.

Nienstedt, M., & Westermann, A. (2007). *Pflegekinder und ihre Entwicklungschancen nach frühen traumatischen Erfahrungen* (2.arg). Klett-Cotta.

Omer, H. (1998). *Resistencia no violenta: Una nueva perspectiva para padres de hijos violentos o autodestructivos*. Gedisa.

Requejo, S. (2024). *24 Siete* [laburmetraia]. Redes AFE https://www.youtube.com/watch?v=CTmkhskrXIY

Rodríguez, A. (2021). *Búsqueda de orígenes en adopción: Mitos y claves*. El Hilo Ediciones.

Rodríguez, A. (2020ko urriak 21a). *Mediación de orígenes en adopción* [Hitzaldia]. Diálogos Adoptia – SCIS Agintzari. YouTube. https://www.youtube.com/watch?v=vHx1dhI_G5M

Winnicott, D. W. (1971). *El proceso de maduración y el entorno facilitador*. Paidós.